

emakumeen TXOKOA



2023KO UDAZKENEKO ESKAINTZA

Azpeitiko Emakumeen Txokoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoa, indarkeria matxistari aurre egitea eta parekidetasunaren aldeko norbanako eta taldeak saretzea bultzatzea helburu dituen espazioa da.

Parekidetasun erreala lortzeko ibilbide horretan, ahalduntze prozesuei ematen zaie protagonismoa, izan zuzenean edo zeharka. Besteak beste, nor bere beharrak, gogoak, desirak eta gorputza balioan jartzeko eta aitortzeko prozesuak garatzea lehenesten da, maila pertsonal zein kolektiboan.

Gainera, emakumeen parte-hartze sozio-politikoa bultzatzeko gunea da eta herrian begirada feminista oinarrian izateko lan egiten da.

HARREMANETARAKO / CONTACTO

Izena emateko epea: ikasturte osoan edo ekintza bakoitzean adierazten den bezala.

Fechas de inscripción: durante todo el curso o en la fecha indicada para cada taller.

Non eman behar da izena / Dónde inscribirse

Emakumeen Txokoa. Goiko kale, 12 behea.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

Ordutegia / Horario

Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

Udako ordutegia (ekaina erdia eta uztaila): astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara

De lunes a viernes de 9:00 a 13:00 y de 16:00 a 19:00.

Horario de verano (mitad de junio y todo julio): de lunes a viernes de 9:00 a 14:00

emakumeen txokoaan parte hartuz, denok irabazten dugu! Zatoz!
¡PARTICIPANDO EN LA CASA DE LA MUJER, GANAMOS TODXS! ACÉRCATE!

JARRAI GAITZAZU / SÍGUENOS


Facebook: AzpeitikoEmakumeenTxokoa

Twitter: @Etxokoa

Instagram: @emakumetxokoa

ikastaroak eta tailerrak

CURSOS Y TALLERES



AZPEITIKO JABETZE ESKOLAK (2023KO UDAZKENA)

ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO DE AZPEITIA (OTOÑO DEL 2023)

Azpeitiko Jabetze Eskolen helburua, emakumeei beren burua eta bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea da. Eskola, maila pertsonalean eta kolektiboan indartu, elkarrekin ikasi, errealitateari ikuspegi feminista batetik begiratu eta gure parte-hartze soziopolitikoa handitzen lagunduko digun topagunea da.

Prestakuntza eskaintza anitza eta parte hartzailea osatzeko, emakumeen proposamenetatik eta parekidetasuna bultzatzeko lan-ildoen lanketatik abiatzen gara.

Gure eskolan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, jendarte parekideago baterako bidea elkarrekin egin dezagun!

IZEN EMATEA | INSCRIPCIÓN

Izena emateko epea | Fecha de inscripción:

irailaren 18tik, irailaren 29ra | del 18 de septiembre al 29 de septiembre

Non izena eman? | ¿Dónde?

Azpeitiko Emakumeen Txokoa. Goiko Kale, 12 behea.

En la Casa de la mujer. Goiko Kale, 12 bajo.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

OHARRAK

Hautzaindegi-zerbitzua eskainiko da taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, izena ematerakoan adierazi.

Se ofrecerá servicio de guardería en el caso de que se cree un grupo. En el caso de necesitar el servicio, indicarlo a la hora de rellenar la inscripción.

1. SKATE IKASTAROA ETA IKUSKIZUNA | CURSO Y EXIVICIÓN DE SKATE

Skateari buruzko iritziak eta ikuspegi anitzak partekatzeko helburua du ekimen honek. Skater estereotipoa aztertuko da eta kultura skater horretan, emakumeen papera zein izan ohi den aztertuko dugu. Gainera, skateparka, emakumeen presentziaz eta feminismoz beteko dugu.

Esta iniciativa tiene el objetivo de compartir opiniones y puntos de vista diversos sobre el skate. Se analizará el estereotipo del skater y analizaremos cuál suele ser el papel de las mujeres en esta cultura skater. Además, llenaremos el skatepark de presencia femenina y feminismo.

Noiz: Irailak 23 | *23 de septiembre*

Ordutegia: egun osoan zehar | *durante todo el día*

Hizkuntza: elebitan | *bilingüe*

Prezioa: dena doan | *todo será gratuito*

Izen ematea: irailaren 13tik 20ra | *desde el 13 al 20 de septiembre*

*Ikastaro eta ekintza desberdinak egongo dira. Adi egon gure sare eta komunikabideei.

Habrán diferentes talleres y actividades. Estad atentas a nuestras redes y medios de comunicación.

2. ESKALADA IKASTAROA

Eskalada praktikatuz, emakumeen parte hartzea sustatuko da eta hauen ahalduntze indibidual eta kolektiboak abian jarriko dira. Horretarako, oinarritzko ezagutzak barneratuko ditugu, eskaladaren nondik norakoak ezagutuko ditugu, hartu beharreko segurtasun neurriak zeintzuk diren argitu eta jakintza hauek praktikan jarri.

Norbere ezagutzarako eta zaintzarako interesgarriak diren kirol praktikak sustatzetik, erronka pertsonalak gainditzeko bidelaguntza eskainiko da, eta gainera, taldean gozatzeko aukera izango dugu, konfidantzazko giroan.

Formatzailea: Esther Cruz Montalbán

Hizkuntza: euskara


Noiz: azaroak 10, 11 eta 18


Ordutegia: Azaroak 10, ostirala, 17:30-19:30; azaroak 11, larunbata, 9:30-11:30; eta azaroak 18, larunbata, 9:30-11:30.

Tokia: Lehen saioa Emakumeen Txokoan; bigarren saioa eskaladako lokalean; hirugarren saioa polikiroldegiko rokodromoan.

Iraupena: 6 ordu

Prezioa: 9€ langileek (6€ langabetu, ikasle eta pentsionistek)





3. AUTOESTIMUA ETA AHALDUNTZEA

Tailer hau norbera bere osotasunean bizitzeko bizi-premiari erantzuteko sortu da. Emakume bezala sozializatzeko dugun modua, begirada beste baten beharrean jartzea izan da. Oso zaila egiten delarik norbere buruari lekua ematea.

Ahalduntze-prozesurako autoezagutza, autoestimua, emozioak eta horien kudeaketa, komunikazioa... landuko ditugu. Hau, baliabide propioak berreskuratuz eta geure burua onartzeko tresna berriak eskuratuz, geure indarguneak eta trebetasunak ezagutuz eta balioetsiz egingo dugu. Zaintzatik eta autokonfiantzatik harreman osasuntsua sortuz gure buruarekin.

Zuk ez baduzu zure lekua hartzen(ematen), nork emango dizu?

Formatzailea: Itxaso Beristain Perez

Hizkuntza: euskara

Noiz: urriak 10etik abenduaren 12ra

Ordutegia: asteartetan, 18:00-19:30

Iraupena: 10 saio, 15 ordu

Prezioa: 22,5€ langileek (15€ ikasle, langabetu edo pentsionistek)

4. EMAKUMEAREN ZIKLOAK ETA OSASUN HORMONALA

Gaur egun hilekoaren inguruan osasun arazo eta desoreka handiak ikusten ditugu. Aldiz, geure gorputzaren sintomak ulertzeko eta tratatzeko baliabide gutxi ditugu, autonomia murrizta daukagularik. Ohikoenak diren arazoei lagundu asmoz honako hiru saioak antolatu ditugu, ugaltze etapa osoan bizi kalitate handiagoz bizitzeko lagungarri izan daitezen. Hilekoa orekatzeko tintura, min fisikoa zein emozionala tratatzeko sendabelar nahasketak eta infusioak, minarentzat ukendua eta umetokia zaintzeko lurrun bainua nola egin ikasiko dugu. Dastaketak egingo dira eta minarentzat ukendua (30 gr) etxera eramango du parte hartzaile bakoitzak.

Formatzailea: Garbiñe Larrea


Hizkuntza: euskara

Noiz: 1. saioa urriak 21, 2.saioa abenduak 23 eta 3. saioa urtarrilak 27

Ordutegia: larunbat goizak, 10:00-12:00

Iraupena: 3 saio, 6 ordu

Prezioa: 9€ langileek (6€ ikasle, langabetu edo pentsionistek)



5. MOITU BAZTERRAK! EMAKUME ETA NESKENTZAT KORRIKA IKASTAROA (Kirol arloarekin elkarlanean)

Korrika egitea geroz eta errotuagoa dago gure inguruan, baina beste arlo askotan bezala, emakumeen presentzia ez da horren handia kalean eta are gutxiago, lasterketetan. Presentzia hori indartzen hasteko, modu kolektiboan egingo dugu korrika, oinarritzko mailatik, gidatuta eta lagunartean, lotsak alde batera utzita eta emakumeak kirolerako dugun gaitasun faltaren inguruko ideia errotik deuseztatuko dugu.

Hizkuntza: euskara

Noiz: urritik abendura

Ordutegia: astelehen eta asteazkenetan, 18.15-19:30

Prezioa: 30€/hilean langileek (20€/hilean ikasle eta langabetu)

Izen ematea: Iralaren 11tik 22ra

6. BATUKADA FEMINISTA

Ikastaroaren helburuak dira emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatzea, musikaz gozatu eta gozaraztea, gure irudimena eta sormena garatzea. Horrez gainera, auto-garapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturaren dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok eta feministok ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

Formatzailea: Ainara Sarasketa eta Arantza Albizu

Hizkuntza: euskara

Noiz: urriaren 9tik abenduaren 18ra

Ordutegia: astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara (bi astean behin)

Iraupena: 6 saio, 12 ordu

Prezioa: 18€ langileek (12€ ikasle, langabetu edo pentsionistek)

7. JOSKINTZA ERALDATZAILEA

Norberak etxean josteko, arropa konponketak eta moldaketak egiteko oinarritzko teknikak ikasiko ditugu. Josteko makinarik gabe eta oso baliabide gutxiarekin lortu dezakegu gure autonomia maila hobetzea. Horretaz gainera, aitzakia polita dugu moda industriaren eta arroparekin daukagun harremanaren inguruan hausnartzeko.

Honako gaiak jorratuko ditugu: botoiak ordezkatzeko, zuloak tapatzeko eta kremailearen bizia luzatzeko lagunduko diguten teknikak, barrenak hartzea, praken gerria estutzea eta zabaltzea, etxeko arropen mezuak moldatzea gure gustuko diseinua sortzea, soberakinei bigarren erabilera bat ematen ikastea eta abar.

Formatzailea: Michaela Fortova

Hizkuntza: euskara

Noiz: urriaren 12tik abenduaren 14ra

Ordutegia: ostegunetan, 18:00-19:30

Iraupena: 7 saio, 10,5 ordu

Prezioa: 15€ langileek (10,5€ ikasle, langabetu edo pentsionistek)



JABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

FICHA DE INSCRIPCIÓN PARA LAS ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO

Izena / nombre

Abizenak / apellidos

Jaioteguna / fecha de nacimiento

NAN / DNI

Helbidea / dirección

Herria / población

P.K. / C.P.

Posta elektronikoa / Correo electrónico

Tlf. / Tlf

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?

¿Has participado anteriormente en las Escuelas de Empoderamiento?

☐ BAI / SÍ

☐ EZ / NO

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?

¿Te gustaría recibir información sobre las actividades de la Casa de la Mujer?

☐ BAI / SÍ

☐ EZ / NO

Nola? / ¿Cómo?

☐ Whatsapp

☐ Korreo elektronikoz / por correo electrónico

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko) / (Para recibir la información mediante Whatsapp, tendrás que guardar el teléfono del primer mensaje que te mandaremos en tu agenda, gracias)

2023ko

en

(e)an / el

de

del 2023

Sinadura / firma:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan / marca con una X:

☐ 1. SKATE IKASTAROA

☐ 2. ESKALADA IKASTAROA

☐ 3. AUTOESTIMUA ETA AHALDUNTZEA

☐ 4. EMAKUMEAREN ZIKLOAK ETA
OSASUN HORMONALA

☐ 5. MOITU BAZTERRAK! EMAKUME ETA
NESKENTZAT KORRIKA IKASTAROA

☐ 6. BATUKADA FEMINISTA

☐ 7. JOSKINTZA ERALDATZAILEA

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?

¿Tienes alguna discapacidad?

☐ BAI / SÍ

☐ EZ / NO

Zein motatakoa? / ¿de que tipo?

Hautzaindegi zerbitzurik behar duzu?

¿Necesitas servicio de guardería?

☐ BAI / SÍ

☐ EZ / NO

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

emakumeen txokoko zerbitzu, ekimen, tailer iraunkor eta jarduera anitzak

SERVICIOS, INICIATIVAS, TALLERES PERMANENTES
Y ACTIVIDADES MÚLTIPLES



PARTE-HARTZE, SENTSIBILIZAZIO ETA INTEGRAZIOAKO EKIMENAK

ACCIONES DE PARTICIPACIÓN, SENSIBILIZACIÓN E INTEGRACIÓN

Parekidetasuna bultzatzeko mota anitzetako ekintzak antolatzen ditugu; hitzaldiak, kultura-jarduerak, tailerrak, zinema-emanaldiak... Publiko zabalar, **pertsona orori** irekita dauden ekimenak dira (hala aipatzen ez bada, behintzat).

AHALDUNTZEA: ¿NOLA ERAGITEN DU EMAKUMEON EGUNEROKOAN? EMPODERAMIENTO: ¿CÓMO IMPACTA EN LA VIDA DE LAS MUJERES?

2018-2019 ikasturteko ikastaroetan emakume desberdinei egindako galderen emaitza da "Gipuzkoako ahalduntze taldeak: parte hartzeko arrazoiak eta aldaketa esanguratsuak" ikerlana. Bertan, maila pertsonalean eta harremanetan, Jabetze Eskolek emakumeengan eragindako aldaketak jorratu dira. Era berean, aldaketa pertsonalei ez ezik, Jabetze Eskolak dauden udalerrietan parte-hartzea, kontzientzia feminista eta sororitatea nola sustatzen den balorean jarriko dugu hitzaldi honetan.

El estudio "Grupos de empoderamiento de Gipuzkoa: motivación para participar y cambios reseñables" es el resultado de las preguntas que se han realizado a diferentes mujeres durante el curso 2018-2019. En el estudio se han abordado los cambios que han generado tanto a nivel personal y relacional las Escuelas de Empoderamiento en las mujeres. También, en esta charla, pondremos en valor no sólo los cambios personales, sino también cómo esto genera participación, conciencia feminista y sororidad en los diferentes municipios donde hay Escuelas de Empoderamiento.

Hizlaria: Pepa Bojó

Hizkuntza: gaztelera | castellano

Eguna eta ordutegia: urriak 4, 18:30etan | 4 de octubre, a las 18:30

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa | En la Casa de las Mujeres de Azpeitia

KALE EDO BALE, AHAIDETASUN FEMINISTETARA!: AMATASUNEN ONDOEZAK ETA ERRESISTENTZIAK (Emagin, formazioa eta ikerketa feminista)

laz abiatutako (ez)amatasun feministen inguruko lanketatik, hainbat korapiloetatik tiraka jarraitzeko beharra azaleratu zen. Zentzu horretan, beharrezkoa da (ez)amatasunez hausnartzen segitzeko espazioak sortzea eta espazio horiek kolektiboak izatea. Izan ere, emakumeok jakin badakigu eremu pribatuan eta era indibidualizatuan hautatzen jarraitzeak zein sufrimendu dakarren. Horregatik, oraingoan, (ez)amatasunetatik ahaidetasun feministetara jauzi egin eta herri desberdinetan, mintegi desberdinen bidez, gai anitzak plazaratuko dira.

Azpeitian, "Amatasunen ondoezak eta erresistentziak" jorratuko ditugu, horretarako, mahai inguru, hitzaldi eta tailer desberdinak antolatuko dira.

Hizlaria: -

Hizkuntza: euskara

Eguna eta ordutegia: urriak 7, larunbata, 9:30-14:00

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

ERRESISTENTZIAK ETA PRIBILEGIOAK | RESISTENCIAS Y PRIVILEGIOS

Saio teoriko praktikoa izango da eta honen helburua, ijito-herriaren errealitatera hurbiltzea izango da emakumeen ikuspegitik. Bestetik, eskubideen eta pribilegioen arteko aldeari buruz hausnartuko dugu oro har, baina emakume ijitoek jasaten duten diskriminazio interseksionala arituko gara zehatzago. Gainera, nagusitasuna duten gizarteak ijito-herriarekiko dituzten erresistentziei eta ijito-herriak maioritarioarekiko dituen erresistentziei helduko diegu.


Esta sesión teórico-práctica tendrá como objetivo, hacer un acercamiento a la realidad del pueblo gitano desde las mujeres gitana. Por otro lado, reflexionaremos sobre la diferencia entre derechos y privilegios en general, pero más específicamente, identificaremos la discriminación que sufren las mujeres gitanas. Además, abordaremos las resistencias de las sociedades mayoritarias hacia el pueblo gitano y resistencias del pueblo gitano hacia la sociedad mayoritaria.

Hizlaria: Palmira Dual (Kera elkarte)

Hizkuntza: gaztelera | *castellano*

Eguna eta ordutegia: urriak 25, 18:30etan | *25 de octubre, a las 18:30*

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa | *La Casa de las Mujeres de Azpeitia*



ATZERRIKO IKASKETEN HOMOLOGAZIORAKO INFORMAZIOA SAIOA **(Udaleko arlo desberdinekin elkarlanean)** **SESIÓN INFORMATIVA DE HOMOLOGACIÓN DE ESTUDIOS EXTRANJEROS** **(en colaboración con las diferentes áreas municipales)**

Saio honetan, atzerriko ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko prozesuen eta baldintzen inguruko informazioa eskainiko da.

En esta sesión se ofrecerá información sobre el proceso y requisitos para la homologación y convalidación de estudios extranjeros

Hizlariak: Bidez Bide elkarteko kideak | *Las compañeras de la asociación Bidez Bide*

Hizkuntza: gaztelera | *castellano*

Eguna eta ordutegia: azaroak 20, 15:00etan | *20 de noviembre, a las 15:00*

Lekua: Basazabal jauregian | *en el Palacio Basazabal*

8. NOKA HIKAstaroa

Hitanoaren noka genero marka ikasi edota praktikatu nahi duen ororentzat da ikastaro hau. Bertan, gaiaren kokapena eta oinarrizko ezagutzak landuko dira, baina, batik bat, praktikatzeko saioak izango dira. Elkarriketa izango da guztiaren oinarria, eta era dinamikoan landuko dira eduki guztiak. Ikastaroan parte hartzen duten guztiek, izan emakume* edo ez, noka marka erabili eta jasoko dute. Izan ere, ikastaro honen helburua da nokaren ezagutza eta erabilera areagotzea. Ordu eta erdiko sei saio izango dira.

Formatzailea: -


Hizkuntza: euskara

Noiz: urriaren 6tik azaroaren 24ra

Ordutegia: ostiraletan, 18:00-19:30

Iraupena: 6 saio, 9 ordu

Prezioa: 13,5€ langileek (9€ ikasle, langabetu edo pentsionistek)





AZPEITIKO EMAKUMEEN OROIMEN HISTORIKOA: MATAZAK

2021eko apirilean eman zioten hainbat emakumek, Azpeitiko Emakumeen Oroimena berreskuratzeko ibilbideari hasiera. Herriko emakume desberdinen ahotsak biltzeko asmoz, herriko emakume desberdinek egin duten lanaren ondorioa aurkeztuko da.

Azpeitiko emakumeen memoria berreskuratzeko ibilbidea hain zuzen. Pausoz pauso eta elkarrekin egingo dugun ibilbidea. Ibilbide fisikoa, baina baita ibilbide sinboliko eta aldarrikatzailea ere.

Azpeitiko emakumeek herriari egindako ekarpena bistaratu eta aitortu nahi du eta esparru ezberdinetan jardun duten emakumeen bizipenak ezagutzea. Badago berreskuratzeko premia bat, aitortzarako premia. Oharkabea pasa zaizkigulako emakume hauetariko asko eta asko, lan isilez, Azpeitia posible egin duten eta egiten dutenak.

Ibilbidean zehar eman ahalko diren pauso bakoitzekin, emakumeontzat garrantzitsuak izan diren eta diren gaiak landuko dira (lana, kulturgintza, militantzia politikoa, elkarlaguntza eta babesak eta abar). Beraz, elkarrekin egin ahalko den ibilbidea da, gutako bakoitzetik abiatu eta taldera, norbanakotik kolektibora, atzera begira egindako bide honek, aurrera egiten lagun diezaigun.

Azpeitiko Emakumeen Mahaiaren eta herriko hainbat emakumeren ekimen eta lanari esker osatu den ibilbidea da hain zuzen. Emakumeak beste emakume batzuk egindako lana aitortzen. Elkar babesten, elkarrekin ahalduntzen.

Aurkezpen publikoa egingo da. Egon adi egutegiari!



IKASTARO IRAUNKORRAK ETA PARTE HARTZE TALDEAK

TALLERES Y GRUPOS DE PARTICIPACIÓN

1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU

Ainhoa Aldazabal Gallastegui naiz. Euskal filologiako ikasketak egin nituen eta paradoxikoki irakurtzeari utzi nion. Skolastika ezagutu nuenean berreskuratu nuen irakurtzeko gogo, plazera eta zaletasuna. Bi pasioren uztarketak eman dit ofizioa: literaturak eta feminismoak.

Formatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegui

Hizkuntza: euskara

Noiz: urriak 5, azaroak 2, azaroak 30, urtarrilak 18, otsailak 15, martxoak 7, apirilak 18 eta maiatzak 2

Ordutegia: 17:30-19:30

Iraupena: 6 saio, 12ordu

Prezioa: 18€ langileek (12€ langabetu eta ikasleek)

*Izena emandakoan, harreratik pasa liburura jasotzera

**Izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago



2. ENPALABRAMIENTO

Honako hau, gaztelera ikastearen bitartez, emakumeen ahalduntzerako gaitasunak lantzea eta hauen arteko sareak eraikitzeko espazioa da. Alfabetizazioan eta gaztelaren oinarriko mailetan zentratua badago ere, taldekideen behar eta maila konkretuetara moldatuta, askotariko edukiak lantzen dira. Horretaz gaindi, kolektiboan lan egiteko eta elkarrengandik ikasteko baliabideak eskaintzen dira.

Este es un taller formativo de español, habilidades personales y funcionales para el empoderamiento de las mujeres. Aunque esté centrado en la alfabetización y nivel básico de castellano, se adapta constantemente a las necesidades y niveles del grupo, trabajando de esta manera diversos temas. Además, se ofrecen herramientas para trabajar en colectivo y aprender las unas con las otras.

Formatzailea: Nerea Del Campo

Hizkuntza: gaztelera | *en castellano*

Noiz: astelehenetan eta asteazkenetan | *los lunes y los miércoles*

Ordutegia: 10:00-12:00

Prezioa: doan | *gratuito*

***Parte-hartzeko izena eman beharko da**

Hay que inscribirse para poder participar

****Izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago**

Es posible inscribirse en cualquier momento del curso

PARTE HARTZE GUNEETAN IZENA EMATEKO FITXA

FICHA DE INSCRIPCIÓN EN LOS GRUPOS DE PARTICIPACIÓN

Izena / nombre	Abizenak / apellidos
Jaioteguna / fecha de nacimiento	NAN / DNI
Helbidea / dirección	
Herria / población	P.K. / C.P.
Posta elektronikoa / Correo electrónico	Tlf. / Tlf

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? ☐ BAI / SÍ
¿Has participado anteriormente en las Escuelas de Empoderamiento? ☐ EZ / NO

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? ☐ BAI / SÍ
¿Te gustaría recibir información sobre las actividades de la Casa de la Mujer? ☐ EZ / NO

Nola? / ¿Cómo? ☐ Whatsapp ☐ Korreo elektronikoz / por correo electrónico

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko) / (Para recibir la información mediante Whatsapp, tendrás que guardad el teléfono del primer mensaje que te mandaremos en tu agenda, gracias)

2023ko en (e)an / el de del 2023

Sinadura / firma:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan / marca con una X:

☐ 1- IRAKURRI ETA AHALDUNDU

☐ 2- EMPALABRAMIENTO

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? ☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO
¿Tienes alguna discapacidad?

Zein motatakoa? / ¿de que tipo?

Hautzaindegi zerbitzurik behar duzu? ☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO
¿Necesitas servicio de guardería?

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.



Zerbitzu eta baliabide feministak

SERVICIOS Y RECURSOS FEMINISTAS

Genero berdintasuna bermatzeko eta parekidetasunaren balioekin bat egiten duten zerbitzu ugari ditugu inguruan. Azpeitiko parekidetasun arlotik bereziki, hainbat zerbitzu kudeatzen dira eta horien inguruko informazio eta sarbidea eskaintzen da Emakumeen Txokotik. Zerbitzuak, KONFIDENTZIALAK, PROFESIONALAK ETA DOAKOAK dira.

HARRERA ETA INFORMAZIOA | RECEPCIÓN E INFORMACIÓN

Emakumeei zuzendutako zerbitzuei buruzko informazioa. Indarkeria matxista kasuetarako zerbitzuen informazioa. Protokolo eta jarraibideen aholkularitza. Herriko parekidetasunerako baliabideen informazioa. Izen emateak. Gela eskaerak. Hitzorduak...

Información general sobre servicios para mujeres. Información sobre casos de violencia machista. Asesoramiento para protocolos y pautas de actuación. Información sobre recursos de igualdad del pueblo. Inscripciones. Peticiones de aulas. Citas...

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

GUNE INFORMALA | ESPACIO INFORMAL

Liburutegi feminista / *Biblioteca feminista*

Kontsultarako gunea / *Espacio para consulta*

Berdintasun gaietan murgiltzeko interneterako sarbidea /

Acceso a internet para introducirse en temas de igualdad

Saretzeko eta egoteko gunea / *Espacio para estar y crear redes*

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

*Galdetu harreran

LIBURUTEGI FEMINISTA

BIBLIOTECA FEMINISTA

Liburu kontsultak / *consultas de libros*
Liburu maileguak / *préstamos de libros*
Ikus entzunezkoen maileguak /
préstamos de audiovisuales

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

*Maileguak harreran

ERREMINTA MAILEGUA

PRÉSTAMO DE HERRAMIENTAS

Etxeko lan txikiearako erreminta maileguak /
préstamo de herramientas para trabajos pequeños
del hogar

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

*Maileguak harreran

AHOLKULARITZA JURIDIKOA | ASESORAMIENTO JURÍDICO

Dibortzioak / *Divorcios*

Emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak / *Procesos penales en casos de agresiones contra las mujeres*

Dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak / *Conflictos generados de los procesos de divorcios*

Mantenu pentsioen ordainketa ezak / *Impagos de pensiones alimenticias*

Bisita erregimenen ez betetzeak / *Incumplimientos de regímenes de visita*

Atzerritartasunarekin lotutako arazoak / *Extranjería*

Etxeko langile zein gainerako langile emakumezkoen kaleratzeak /

Despidos trabajadoras del hogar y demás trabajadoras

Diskriminazioa / *Discriminación*

Eskubideei buruzko infomazioa / *Información sobre derechos*

Laguntza sozialak / *Ayudas sociales*

Bestelako kontsultak / *Otras consultas*

Noiz? Hilean bi ostegunetan

Non? Emakumeen Txokoan

Nork? Garazi Plazaola eta Macarena Mugica abokatuak (Irule abokatuak elkarteko kideak)

*Aurrez hitzordua hartu behar da 688 751 000 telefonora deituta

**Hitzordura ezin bada azaldu, abisatu 48 ordu lehenago, gutxienez

SEXU, GENERO ETA BIKOTE AHOLKULARITZA | ASESORAMIENTO SEXOLÓGICO, DE GÉNERO Y DE PAREJA

Emakume eta gizonek, bakarka edo konpainian, sexu eta bikote zailtasunak izaten dituzte bizitzako garai desberdinetan. Horiei irtenbidea eman, jakin-minari erantzun eta genero estereotipoetan oinarritutako harreman sexualak gainditzeko zerbitzua da hau.

Las mujeres y los hombres, sea solos o en compañía, tienen dificultades sexuales y de pareja en las distintas etapas vitales. Este es un servicio que intenta darles herramientas a esas dificultades, dar respuesta a las curiosidades y ofrecer información para superar las relaciones sexuales basadas en los estereotipos de género.

*Aurrez hitzordua eskatu behar da Emakumeen Txokoan edo 688 751 000 telefonora deituta

** Online bidezko kontsulta egiteko aukera.

